

Aitaren betekizuna seme-alaben heziketan

Gaur egun, gero eta gehiago, gizonezkoek eta emakumezkoek eginkizun berdintsuak dituzte familia giroan eta horrek eguneroko dinamika edo jarduerak errazteaz gain, seme-alabek ikuspegi zabalagoa izatea eragin eta ahalbidetzen du.

Aitak familian duen betekizunaz hitz egiten denean ez dira “gizonezko” aitak bakarrik sartu nahi; ar edo eme izateari begiratu gabe, “baterako hezkuntzaren” garrantzia aipatu nahi da (ama/aita, ama/ama, aita/aita, ama-familia zabala edo beste, aita-familia zabala edo beste...).

Aitak bere seme-alaben hazkuntzan gehiago parte hartzeko ondorengoak egin dezake:

- Bere funtzioak definitu. Parte hartu dezakeen eginkizun asko daude: jolastu, fardelak aldatu, bainatu, etab. Helburua, haurtxoarekin posible den guztietan, jolastea, ukitzea eta hitz egitea da.
- Ohitura propioak sortu. Aita eta seme edo alabaren artean ohitura bat izan daiteke irteerak edo kirola egitea edota zaletasunak partekatzea. Garrantzia handiko gauza ez dela badirudien arren, aita eta seme-alabak pasatzen duten denbora momentu berezia bilakatuko da.
- Bere erantzukizunak bereganatu. Aitak, bere haurra jaso dezake haurtzaindegitik, goizetan janzten lagundu diezaioke, janaria prestatu eta medikura eraman dezake, beste gauza askoren artean. Haurraren zaintzaz arduratuz, aita pozik egongo da eta aita izatearen gaitasunaz harro sentituko da.
- Lana eta familia elkarlotzen saiatu. Aitek ere beraien lanetik deskantsatu behar dute bere haurren zaintzaz arduratzeko behar duen energia indarberitzeko.

Gurasoek seme-alaben bizitzan paper garrantzitsua eta banakoa jokatzen dute. Aldiz, premisa hauek kontuan izan behar dira:

- Etxeko lanetan inplikaturik dauden bikoteak beraien seme-alabentzat berdintasun eredu dira, era berean beraien garapen psikologikoa sustatzen dutelarik. Garrantzitsuena kalitatezko harremanak izatea da.
- Bikoteko bi kideen inplikazioak umeen garapen intelektual eta sozio emozional hobea ekarriko du. Inplikazio hori hasieratik ematen bada, nerabezaroan beraien seme-alabekin harreman ona izatea errazten du.
- Banantzea edo dibortzioaren kasuan, aitarekin harremanean egoteak (bereziki zaintza amarena denean, dibortzioaren ondoren) babestu egingo du haurra gurasoek seme-alabaren aurrean izan dezaketen gatazken ondorioetatik. Kasu horietan, aitarekin harremanetan egoteak

izugarrizko garrantzia du eta txandak antolatzea eta asteburuetan seme-alabekin igarotzea baino gehiago da eta gehiago eskatzen du.

Laburpena

Bikoteko bi kideak behar adina denbora eskaini behar diote familiari: elikadura, eskolaratzea, mediku asistentzia, errekurtsio ekonomikoak ... Baina horrezaz gain hurrekin bestelako egoerak landu behar dituzte: laguntasuna, jolasa, kontaktua, babesa, espresio emozionala ... Gurasotasun egoera horretan, aitak eta amak arauak eta mugak jartzen dituzte, garapena estimulatzen dute, horrez gain errekurtsio ekonomikoak eta beraien seme-alaben ardura hartzeko hainbat errekurtsioz hornitzeaz arduratzen dira.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández
Dr. Juan Luís Martín Ayala
ETXADI
Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia